

San Pankrazio 2017 Arrasate eta IDEOn

2017/05/15

Aurtengoan maiatzaren 11an izan da San Pankrazio eguna eta urtero bezala giro paregabean ospatu genuen Arrasate eta IDEOn. Azken urteotan bezala kirol zerbitzutik hainbat ekintza antolatu genituen. Goizeko 10:00etan hasita Arrasateko fakultatean partxis, mus, areto futbola eta saski 3x3 txapelketak jokatu ziren. Guztira, 60 ikasle eta langilek parte hartu zuten, egunari hasiera ederra emanez. Hauek izan ziren ekintza bakoitzeko irabazleak:

Partxis: Ane Antia eta Egoitz Arruti

Areto futbola: Antolakuntza taldea

Mus: Paul Iruretagoyena eta Joseba Cillaurren Arrillaga

Saskibaloia 3x3: Diseño 1C

Emitza guztiak hemen.

IDEOko fakultatean aukera zabalagoa izan zen, aurretik aipatutako ekintza guztiez gain toka, mahai tenisa, dardoak eta pokerrera jokatzeko aukera egon baitzen. Kasu honetan ia 90 ikasle eta langilek parte hartu zuten ekintzetan.

San Pankrazio eguneko argazki guztiak ikusgai.



